

## **EUDELeK EISCO 2012ko Biltzarrera eramaten du “TOKIKO BERRIKUNTZA AGENDA (TBA)” proiektua**

**EUDELen ordezkari den aldetik, Elgoibarko alkateak, Alfredo Etxebarriak, “*Hazkunde adimentsua eta Gobernu irekia*” izeneko mahai-inguruan parte hartzen du, Euskadiko udalerriek Tokiko Berrikuntza Agendetan egindako lana aurkezteko.**

Azaroaren 12, 13 eta 14an, EISCO 2012 Europako Biltzarra egiten da Guimarãesen (Portugal), eta, aurten, gai hau jorratzen da: “Gobernu irekia Europan: erronka bat Tokiko Agenda Digitalarentzat”.

Elgoibarko alkateak ordezkaturik, **EUDELeK azaroaren 14ko 11:00etan izaten den mahai-inguruan hartuko du parte.** Gaia hurrengoa izan da: “*Hazkunde adimentsua eta Gobernu irekia*”. Nazioarteko foro honetan, EUDELeK “Euskadiko Tokiko Berrikuntza Agenda (TBA)” aurkezten du, Euskadi berritzailea eraikitzeko prozesuan udalerriak eta udalak biltzeko euskal estrategia gisa. Abian jarri zenetik egindako aurrerapenak eta eskuratutako emaitzak aurkezten dira.

Udalak dira nazioarteko topaketa honen protagonistak; hain zuzen ere, bi urterik behin, Biltzar hau nazioarteko topaketa-foro gisa eratzen da, tokiko eta eskualdeetako gobernuetako administrazioen artean.

EISCO 2010 edizioa, Bilbon egindakoa, EUDELeK antolatu zuen ofizialki, eta, bertan, Europako tokiko gobernuetako 400 aditu eta politikari baino gehiago bildu ziren, e-Gobernuari eta Informazioaren Gizarteari buruz eztabaidatzeko.

### **13 udal berri berrikuntzaren alde**

2012. urtean, ‘TBA’ ekimenara 13 udal berri gehitu dira; izan ere, Andoain, Artziniega, Basauri, Bergara, Bermeo, Elorrio, Gernika-Lumo, Getaria, Gordexola, Hondarribia, Leioa, Zalla eta Zerain euren 2012ko berrikuntza agenda propioa diseinatzeko hasi dira.

2012an 13 udal berri horiek sartuta, urte amaieran 33 udal izango dira euren administrazioetan gardentasuna, hurbiltasuna eta herritarrekiko lankidetzat sustatuko duten proiektuen agenda estrategikoa gehitzearen alde egingo dutenak.

Berrikuntzako udal planak prestatzeko prozesuetan Euskadiko udalei laguntza ematea da Tokiko Berrikuntza Agendaren (TBA) ekintza-ildoetako bat. Ekimen hau EUDELen eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren arteko lan koordinatuaren emaitza da, hiru Foru Aldundien lankidetzarekin.

**Informazio gehiago:**

> TBARI buruz (Tokiko Berrikuntza Agendak Euskadiko udalerrietan):

[www.eudel-ail.net](http://www.eudel-ail.net)

>EISCO 2012 Biltzarrari buruz: [www.eisco2012.eu](http://www.eisco2012.eu)

**EISCO Biltzarrari buruz**

EISCO Biltzarra **Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluak (CMRE)** babesten duen ELANET sareak antolatzen du, eta Europako tokiko eta eskualdeetako gobernu guztiei dago zuzenduta, bai eta Europako sareei ere.

EISCO funtsezko hitzordua da nazioarteko topaketen egutegian, duen deialdi-gaitasunagatik eta oso emaitza arrakastatsuak lortzen dituelako ezagutzaren dibulgazioan, praktika onen trukean eta, bereziki, Europako ereduarekin bat etorriko diren Tokiko Administrazioen antolakuntza-kultura berriranzko urratsetan.